



OIARTZUNGO  
UDALA

Oiartzungo Udalak, droga-mendekotasunen prebentziorako kontseiluak eta Askagintzak antolatu duten lehiaketa.

**“Lema eta logotipo lehiaketa jaietan arduraz kontsumitzearen alde”**

**Xanixtebanetan, Sagardo Egunean...jaietan oro har kontsumo arduratsua sustatzeko lema eta logotipo lehiaketa antolatu da Oiartzunen**

Oiartzungo droga-mendekotasunen prebentziorako kontseiluak, udalarekin eta Askagintzarekin elkarlanean, jaietarako lema eta logo lehiaketa abian jarri du. Irudia eta logoa jaietan erabiliko diren pegatina eta karteletarako oinarri izango dira.

Lehiaketak ondorengo oinarriak ditu:

1. Helburua: **Jaietan kontsumo arduratsua sustatzea.**
2. Parte-hartzaileak: lehiaketa parte hartu nahi duen pertsona orori zuzenduta dago. Nahi diren logo eta lema guztiak aurkeztu daitezke.
3. Baldintzak:
  - a. diseinuak originala eta berria izan beharko du.
  - b. proposamenak **jaietan ondo pasatzeko (baina pasatu gabe) ideia islatu beharko du.**
  - c. oiartzuera erabiltzea baloratuko da.
4. Entregatu beharreko materiala: diseinuak modu honetan entregatu beharko dira:
  - a. email baten bidez: logotipoa koloretan eta txuri beltzean eta lema aldamenean txertaturik.
  - b. logo eta lemarekin batera, nahi izanez gero, azalpen labur bat aurkeztu ahal izango da.
5. Lanen aurkezpena: **lana aurkezteko epea zabalik egongo da 2009ko maiatzaren 24a bitarte.** Lanak Askagintzako emailera bidali behar dira ([drogaklarrugorrian@askagintza.com](mailto:drogaklarrugorrian@askagintza.com)) eta bertan **“logo eta lema lehiaketa”** kontzeptua ipiniaz.
6. Epaimahaia eta emaitza: epaimahaia Prebentziorako Kontseiluko kideek osatuko dute. Epaimahaiko kideek ezingo dute lanik aurkeztu. **Epaimahaiaren erabakia Askagintzako webgunean nahiz prentsan zabalduko da.**
7. Saria: **120 euro Caravanas Oiartzunen kirol materialean.**